

PARTE HARTZEKO DEIALDIA

WINE PARIS 2027

Euskadiko mahastizaintza- eta ardogintza-sektorearen sustapena

**Data:**

2027ko otsailak 15 - 17

**Tokia:**

Paris Expo Porte de Versailles



Nori zuzenduta: Upelategiak, ekoizleak, handizkariak, inportatzaileak, esportatzaileak, mahastizaintza eta ardogintzaren sektoreko banatzaileak

**IZEN-EMATE IREKITA**

2026ko uztailaren 31ra
arte

**Azokaren webgunea:**www.wineparis.com**Maiztasuna:**

Urtekoa

**INFORMAZIO GEHIAGO**

Sara Lasa eta Lucía de Artaza

☎ 94 470 65 00

✉ agro@camarabilbao.com

BARCELONA WINE WEEK 2027

Euskal elikagaien industria **kanpoan sustatzen laguntzeko jardueren barruan**, Eusko Jaurlaritzako Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza Sailak, **HAZI** Fundazioaren bitartez, euskal enpresen partaidetza bateratua antolatzen du **BARCELONA WINE WEEK 2027** azokan. Azoka hori **Montjuiceko erakustazokan** egingo da, **Bartzelonan, 2027ko otsailaren 8tik 10era**.

AZOKAREN IZAERA

Barcelona Wine Week mahastizaintzaren eta ardogintzaren sektorerako **erreferentziatzeko azoka** eta **nazioko eta nazioarteko merkatuetan** merkataritza sustatzeko plataforma estrategiko gisa finkatu da. Erosle profesionalen eta nazioarteko operadoreen presentzia gero eta handiagoak aukera ematen du azoka negozio-harremanak sortzeko, merkataritza-sarea zabaltzeko eta enpresa parte-hartzaileen ikusgarritasuna handitzeko.

Eusko Jaurlaritzaren **partaidetza taldekatua BWW Lands** espazioan egongo da batez ere, Jatorri Deiturek eta kalitatezko beste zigilu batzuek babestutako upeltegietzako zuzendutako gunea. Edari destilatuen enpresak **BWW Impulse** espazioan kokatuko dira, partaidetza taldekatuetarako eta ekoizle txikietarako zuzendutako espazioa.

BWW 2026-KO DATUAK



26.000

bisitari profesional
(20% nazioartekoak)



13.700

negozio
bilera



1.500

expositore



138

hizlari
aditu



962

nazioarteko
inportatzaileak

PARTE HARTZEKO BALDINTZAK

BARCELONA WINE WEEK 2027 azokan parte hartu ahal izango dute soilik **gizarte-egoitza Euskadin** duten eta Eusko Jaurlaritzaren **Elikagaien Industrien Erregistroan inskribatuta** dauden enpresa ekoizleek.

AZOKAREN AURRETIK

Enpresako ordezkari batek **parte hartzeko konpromisoa hartzea** eta dagokion kuota ordaintzea; beraz, ezin da baja eman Euskadiren standean sartu dela jakinarazi ondoren.

Enpresek **nahitaez joan behar dute** muntaketa-egunera, adierazitako orduan, salgaiak jasotzeko eta standetako apainketa-lanak amaitzeko, inaugurazioaren aurretik eta beharrezko aurrerapenarekin.

AZOKAN ZE HAR

Erakutsitako produktuek **Euskadiko fabrikaziokoak izan beharko dute**. Ezingo dira inolaz ere aipatu edo aurkeztubeste autonomia-erkidego batzuetako produktuak.

Standean egon azoka-egun eta -ordu guztietan zehar.

Azoka amaitzean, produktu guztiak **behar bezala jaso** eta standeko elementuak jasotako baldintza berdinetan entregatu.

Enpresa bat standetik joaten bada, justifikatutako ezohiko arrazoirik gabe, azokaren ordutegi ofizialean zehar, hurrengo edizioan lehentasunezko eskubide guztiak galduko ditu (inskribatzeko ordena eta gainerakoak). Soilik haren eskaera artatuko da espazioa badago eskuragarri gainerako eskaera guztiak artatu ondoren, inskribatzeko eta ordaintzeko egunetan.

Halaber, enpresa batek edo gehiagok standa uzteagatik Eusko Jaurlaritzak, taldearen antolatzaile gisa, **zehapen ekonomikorik** jasotzen badu azokaren antolatzaileen eskutik, berehalabidaliko zaie arau-haustea eragin duten enpresei.

AZOKAREN ONDOREN

Ebaluazio-inkesta bete, eskatzen denean.

PARTE HARTZEKO KLAUSULA JURIDIKOAK

BARCELONA WINE WEEK 2027an parte hartzea borondatezkoa da, eta ez dakar eskubide automatikorik plaza lortzeko edo parte hartzeko etorkizuneko jarduketetan. Onartu aurretik, deialdi honetan, Euskadiko Elikagaien Industriaren 2027ko Sustapen Planean eta araudi aplikagarrian jasotako eskakizunak bete beharko dira, eta, plazak eskuragarri egoteaz gain, azokaren antolatzaileek baldintzak baieztatu behar dituzte.

ARAUDIA BETETZEA ETA BAZTERTZEKO ARRAZOIAK

Ezin izango dute parte hartu zigor penal irmoa edo administrazio-zehapen irmoa jaso duten erakundeek, honako hauekin zuzenean lotutako arau-hauste astun edo oso astunengatik: jarduketaren xede-jarduerarekin, elikadura-segurtasunarekin, lan-araudiarekin, tratu-berdintasunarekin, kontratazio publikoarekin edo laguntza publikoetarako sarbidearekin.

Deialdi honetan, Euskadiko Elikagaien Industriaren 2027ko Sustapen Planean edo araudi aplikagarrian jasotako baldintza eta betebeharrak urratzeak partaidetza ukatu, mugatu, baztertu edo gaitzestea eragin dezake, arrazoituta eta bidezkoa denean, erakunde interesdunari entzun ondoren.

BALORATZEKO ETA BAZTERTZEKO AHALMENAK

HAZI Fundazioak, arrazoituta, indarreko prozedura judizial eta administratiboak baloratu ahal izango ditu, baldin eta izaeragatik, larritasunagatik edo ondorioengatik, jarduketaren garapen egokiari, taldeko partaidetzaren erakunde-irudiari edo xede-interes publikoari eragin ahal badiete.

Indarreko prozedura judizial edo administratiboak egoteak ez dakar, besterik gabe, erakunde eskatzailea automatikoki baztertzea. Erabakiak hartzeko, proportzionaltasunaren, tratu-berdintasunaren, diskriminaziorik ezaren eta arrazoiketa nahikoaren printzipioak errespetatuko dira.

PARTE HARTZEKO KLAUSULA JURIDIKOAK

ARAUDIA BETETZEARI BURUZKO ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA

Parte hartzeko eskaera osatutzat jo dadin, enpresak erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu beharko du araudia betetzeari eta parte hartzeko baldintzei buruz, deialdi honetan **I. Eranskin** gisa atxikitako ereduarekin bat, honako hauekin batera: izena emateko inprimakia, ordainagiria, zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarenak ordainduta izatearen frogagiria eta lehengaien jatorriari buruzko zinpeko adierazpena.

Adierazpen horren bidez, erakundeak adieraziko du araudi aplikagarria betetzen duela, ez dela izan zigor penal irmoaren edo administrazio-zehapen irmoaren xede deialdian jasotako terminoetan, indarreko prozedura judizial edo administratiboak jakinaraziko dituela, partaidetzari eragin ahal badiote, eta konpromisoa hartzen duela aldaketa garrantzitsu ororen berri emateko hautaketa-prozeduran zehar edo azoka egunetan-zehar.

Datu garrantzitsuak faltsuak nahiz okerrak badira edo ezkututzen badira, partaidetza ukatu, baztertu, mugatu edo gaitzetsi ahal izango da, balizko erantzukizunei kalterik egin gabe.

JARRAIPENA ETA KONTROLA

HAZI Fundazioak informazio gehigarria eskatu, adierazitako baldintzak betetzen direla egiaztatu eta emandako partaidetza berrikusi ahal izango du. Urraketa-kasuan, partaidetza gaitzetsi edo mugatu ahal izango da, arrazoituta eta bidezkoa bada, erakunde interesdunari entzun ondoren.

PARTE HARTZEKO EREDUA

Eusko Jaurlaritzak **WINE PARIS 2027** programan parte hartzeko aukera ematea aurreikusten du. Partaidetza horrek honako baldintza hauek bete beharko ditu: lekua izatea, interesa duten enpresen gutxieneko kopurua eta azoka-erakundeak baldintzak berrestea.

Eusko Jaurlaritzaren erakustokiak gehienez ere enpresa kopuru jakin batentzako lekua izango du. Interesa duten enpresa gehiago egonez gero, hautaketa bat egingo da, izena emateko hurrenkeraren arabera. Inskripzioa osoa izango da, baldin eta eskatzen diren agiri guztiak aurkezten badira: izena emateko inprimakia beteta, ordainagiria, lehengaiaren jatorriari buruzko zinpeko aitorpena, araudia betetzeari eta parte hartzeko baldintzei buruzko erantzukizunpeko adierazpena, eta enpresak zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela egiaztatzen duten agiriak.

Bestalde, Eusko Jaurlaritzaren presentzia enpresa parte-hartzaileen gutxieneko kopurua betetzearen mende geratuko da.

OHARRAK:

1. Eusko Jaurlaritzak Wine Paris 2027an espazio bat izango du parte hartu nahi duten kalitateko ardoak (jatorri-deitura duten ardoak), jatorri-deitura duten txakolinak eta/edo bestelako edari alkoholodunak ekoizten dituzten Euskadiko elikagaien industriako enpresei lekua egiteko.
2. Erakustokia azoka-antolakundeak kokatzeko dago.

PARTE HARTZEKO KOSTUA

WINE PARIS 2027an, Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza Sailak kalitatezko ardoak (jatorri-deitura duten ardoak), jatorri-deitura duten txakolinak eta beste edari alkoholodun batzuk ekoizten dituzten upeltegien parte-hartzea sustatuko du.

GARRANTZITSUA:

Partekatutako standak esleitzeko, inskripzio osoaren hurrenkera zorrotza jarraituko da, eta ezinbestekoa izango da ordainagiria bidaltzea, zure enpresak zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela egiaztatzen duten dokumentuak bidaltzea, eta araudia betetzeari eta parte hartzeko baldintzei buruzko erantzukizunpeko adierazpena formularioaren bidez inskribatzearekin batera.

Lehentasuna emango zaie [**Euskadiko Elikadura Sistemaren Enpresa Jardunbide Egokien Kodera**](#) atxikitako enpresei.

STAND PARTEKATUA

KOSTUA

3.100 € + BEZ %21 = 3.751 €

EREDUA

- Mostradorea (enpresen arteko trenkada bereizlerik gabe)
- Bilera-eremu partekatua
- Biltegi partekatua

EUSKO JAURLARITZAREKIN

PARTE HARTZEA

IZENA EMATEKO AZKEN EGUNA: 2026ko UZTAILAREN 31a

Plaza-kopurua mugatua denez, gomendatzen dugu izena emateko inprimakia betetzea eta ordainagiria, enpresak zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarenak ordainduta dituela egiaztatzeko frogagiriak, lehengaien jatorriaren zinpeko adierazpena eta araudia zein parte hartzeko baldintzak betetzeari buruzko erantzukizunpeko adierazpena bidaltzeko, ahalik eta azkarren: agro@camarabilbao.com

Enpresa partaideak hautatzeko, izena emateko dokumentuen harrera-ordena errespetatuko da, eta lehentasuna emango zaie **Euskadiko Elikadura Sistemaren Enpresa Jardunbide Egokien Kodera** atxikitako enpresei.

Eskaera osatutzat jotzeko eta kontuan hartzeko, honako hauek egin beharko dituzte:

FORMULARIOA BETE

Inprimakian eskatutako informazioari dagokionez, azokako katalogo ofizialerako eta gainerako sustapen-elementuetarako datuak transkribatuko dira.

IZENA EMATEAK

ORDAINAGIRIA BIDALI

Kontu-zenbakia:

ES49 3035-0179-61-1791069900

Laboral Kutxa, HAZIren izenean.

Laboral Kutxaren BIC kodea: CLPEES2MXXX

Kontzeptua: "Enpresaren izena + WINE PARIS 2027"

- HAZIren Finantza Sailak faktura bidaliko die dagokion zenbatekoarekin, partaidetza baieztatu ondoren.

ZERGA-BETEBEHARRAK ETA GIZARTE SEGURANTZAREKIKOAK

Nahitaezkoa da zure enpresak zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela egiaztatzen duten dokumentuak bidaltzea.

Izena emateko eta informaziorako kontaktua:
agro@camarabilbao.com · 944 70 65 00

ARAUDIA BETETZEARI BURUZKO ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA BIDALI

Nahitaezkoa da araudia eta parte hartzeko baldintzak betetzeari buruzko erantzukizunpeko adierazpena aurkeztea, deialdi honetan eranskin gisa atxikitako ereduarekin bat. Adierazpen hori enpresaren ordezkariak sinatu beharko du.

EUSKO JAURLARITZAREKIN

PARTE HARTZEA



GARRANTZITSUA

Inskripzioa formalizatutzat jotzeko, IZENA EMATEKO INPRIMAKIA BETE BEHARKO DA, eta honako hauek bidali: ORDAINAGIRIA, ZERGA-BETEBEHARRAK ETA GIZARTE SEGURANTZARENAK ORDAINDUTA IZATEAREN FROGAGIRIA, LEHENGAIEN JATORRIAREN ZINPEKO ADIERAZPENA ETA ARAUDIAK ETA PARTE HARTZEKO BALDINTZAK BETETZEARI BURUZKO ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA, inskripzio-data gisa adieraziz, ondorio guztietarako, inskripzioaren ordainketaren eguna.

Izena emateko inprimakia betetzeak EZ DAKAR enpresak Euskadi Basque Country standean parte hartzea. Eusko Jaurlaritzak izen-ematearen onarpena jakinaraziko dio.

ENPRESA BATEK UKO EGITEN BADIO PARTE HARTZEARI FAKTURA JASO ONDOREN, HAU DA, EUSKADIKO STANDEAN SARTU DELA JAKINARAZI ONDOREN, ORDAINDUTAKO KOPURU GUZTIA GALDUKO DU.

Soilik ezinbesteko kasuetan baloratuko dira enpresak aurkeztutako arrazoiak, eta, hala badagokio, ordaindutako zenbatekoaren ehuneko bat itzuliko da.

Soilik kasu hauetan aurreikusiko da enpresek ordaindutako zenbatekoak itzultzea:

- Enpresek eskatutako espazioak azokaren antolakuntzak Eusko Jaurlaritzari adjudikatutako espazioa gainditzen badu, hautatuak izan ez diren enpresek izena eman aurreko kuota jasotzeko eskubidea izango dute.
- Eusko Jaurlaritzaren parte-hartzea baliogabetzen bada ezinbesteko kasuagatik edo parte-hartzaileen kopurua nahikoa ez izateagatik, enpresei ordaindu duten zenbatekoaren % 100 itzuliko zaie.

ESKAINITAKO ZERBITZUAK

Eusko Jaurlaritzaren Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza Sailak, HAZI Fundazioaren bitartez, zerbitzu hauek emango ditu:



ESPAZIOAREN KONTRATAZIOA

Partaidetza-espazioa enpresa interesdunen artean banatuko da, azokaren antolatzaileek finkatutako osasun-neurrien eta segurtasun-protokoloen arabera.



STANDAREN DEKORAZIOA

Erakustokiaren dekorazioa eta oinarritzko altzariak uniformeak izango dira Euskal Herriko standeko erakusmahai guztientzat, eta honako elementu hauek izango dituzte:

- mahai bat eta 4 aulki, mostradorea, enpresa erakusketariaren errotulua, konexio elektrikoa, hozkailua duen biltegia eta harraska.



SALGAIEN GARRAIOA

Eusko Jaurlaritzak salgaiaren bidalketa taldekatua antolatuko du, esleitutako garraiolari ofizialak adierazitako puntu komun batetik, salgaia standean entregatu arte. Ez da itzulerako garraiorik antolatuko.

Garraiolariak zuzenean fakturatuko dio salgaia enpresa erakusketari bidaltzearen kostua.

Dagokionean, enpresa garraiolari esleipendunaren datuak emango zaizkie. Enpresek merkantzia jasotzen duten bitartean bertan egon beharko dute, adierazten zaien orduan, bai eta beren standak jaialdia inauguratu baino behar bezain lehenago apaintzeko ere.

ESKAINITAKO ZERBITZUAK



PABILOIAREN MANTENTZEA (GARBIKETA, ELEKTRIZITATEA, URA...)

Eusko Jaurlaritza arduratuko da garbiketa-, elektrizitate- eta ur-zerbitzuez, eta, oro har, pabiloiaren mantentze-lanez. Hala ere, enpresa bakoitza arduratuko da esleitutako espazioa garbitze-baldintza egokietan mantentzeaz.



EDALONTZI ETA ESKUPIDERA ZERBITZUA

Kopen alokairua erakusketariaren kontura izango da. Hala ere, Saila enpresen esanetara dago zerbitzu horren kontratazioa koordinatzeko.



AZOKAKO KATALOGO OFIZIALEAN SARTZEA

Eusko Jaurlaritzak behar diren izapideak egingo ditu azokaren webgune ofizialean eta azokaren katalogo ofizialean izena ematen duen enpresa erakusketari bakoitzak izena eman dezan ([izena emateko formularioan](#) jasotako datuak agertuko dira). Gainera, gure upeltegiak azokan egoteari ahalik eta etekin handiena ateratzeko beharrezkoak diren kudeaketak egingo ditu, eta azokaren sustapen-aukera guztien berri emango du.



ERAKUSKETARI-PAKETEA

- Erakusketariaren eremurako sarbidea.
- Erakusketarien 3 pase.
- Dastatze-kit bat (oihalezko poltsa bat, kortxo-ateratze bat, listu-ontzi bat, otearen aurkako 3 tapoiko pakete bat eta 1 ur-botila pakete, lehenengo egunerako bakarrik).
- Listu-ontziak husteko zerbitzua.
- Enpresa eta bere produktuak online katalogoan aurkeztea (2026ko irailetik aurrera).
- Online katalogoan hiru produktu sartzea (ondoren mugarik gabeko produktuak kontratatzeke aukerarekin).
- Negozio-bileren plataformara sartzea (hilabete lehenagotik bi aste geroago arte).
- Banner-kita: web-banner pertsonalizatua zure logotipoarekin eta zure estandaren zenbakiarekin.
- 50 gonbidapen elektroniko, bidaltzeko azken eguna 2027/01/17 dela, eta bisitariantzat 2027/01/24ra arte balio duela.

I ERANSKINA

ARAUDIA ETA PARTE HARTZEKO BALDINTZAK BETETZEARI BURUZKO ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA

[Izen-abizenak] jaun/andreak, _____,
_____ [zenbakia] NANarekin, _____ [sozietate-izena]
erakundearen izenean eta ordezkari gisa, _____ [zenbakia] IFZarekin,

egoitza sozialarekin [helbidea], eta _____, [kargua/ordezkaritza] gisa, **WINE PARIS 2027** azokan parte hartzeko eskaeraren harira, Euskadi 2027 Elikadura Industria Sustatzeko Planarekin bat,

HONAKO HAU ADIERAZTEN DU:

- Ordezkatzen duen erakundeak Euskadiko Elikagaien Industriaren 2027ko Sustapen Planean jasotako partaidetza-eskakizunak betetzen ditu deialdi honetan.
- Erakundearen egoitza soziala Euskadin dago, eta inskribatuta dago Eusko Jaurlaritzaren Elikadura Industrien Erregistroan.
- Erakundeak ordainduta ditu zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarenak, baita eskatutako jarduketan parte hartu ahal izateko gainerako betebehar aplikagarriak ere.
- Erakundeak araudi aplikagarria betetzen du, honako hauek barne: lan-araudia, elikadura-segurtasuna, tratu-berdintasuna, kontratazio publikoa eta laguntza publikoetarako sarbidea, planean eta deialdi honetan jasotako terminoetan.
- Erakundeak ez du jaso zigor penal irmo edo administrazio-zehapen irmorik, honako hauekin zuzenean lotutako arau-hauste astun edo oso astunengatik: jarduketaren xede-jarduerarekin, elikadura-segurtasunarekin, lan-araudiarekin, tratu-berdintasunarekin, kontratazio publikoarekin edo laguntza publikoetarako sarbidearekin.
- Erakundeak ez dauka abian prozedura judizial edo administratiborik, partaidetza-baldintzak betetzeari, jarduketaren garapen egokiari edo xede-interes publikoari eragin ahal dietenak. Bestela, erakundeak konpromisoa hartzen du inguruabar hori jakinarazteko HAZI Fundazioari, baloratzeko beharrezko informazioa ematen.
- Erakundeak konpromisoa hartzen du HAZI Fundazioari jakinarazteko hautaketa-prozesuan zehar edo azokak iraun bitartean jazotako aldaketa garrantzitsu oro.
- Erakundeak adierazitako baldintzak betetzen dituela egiaztatzeko dokumentazioa du, eta konpromisoa hartzen du HAZI Fundazioari bidaltzeko hala eskatzen duenean.
- Erakundeak badu honen berri: datu garrantzitsuak faltsuak nahiz okerrak badira edo ezkututzen badira, partaidetza ukatu, baztertu, mugatu edo gaitzetsi ahal izango da, balizko erantzukizunei kalterik egin gabe.

[Tokia] _____-n, [data] _____.
Sinadura:

[Sinatzailearen izena eta kargua]

Datuen babesari buruzko informazioa

Adierazpen honetan jasotako datuak HAZI Fundazioak / Eusko Jaurlaritzaren Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza Sailak tratatuko ditu, WINE PARIS 2027 azokako partaidetza kudeatzeko, parte hartzeko baldintzak betetzen direla egiaztatzeko eta, hala badagokio, beharrezko jarraipen- eta kontrol-jarduketak egiteko.